

Zuri, behin-behineko kontratupeko horri!

Hitzarmenak kontratu bilakatu ordez kontrakotu ditugun garai haue-tan, berrogeitaka urte lan kontratu amaigabeen arituta, bizitzak ziurgabetasun osoan ezarri nauenean, urtero lan kontratua luzatuko ala etengo zaien jakin gabe eta etorkizuna etorkin duten arren, daukaten onena ematen ari diren langile horiei, begirunez eta goxotik.

Oharra:

1. Goitik behera eta ezkerretik eskui-nera irakurtzeko antolatuta daude bertsoak, gure gizarteko politikaren ildo eta noranzko berari jarraituz.
2. Ez dut ezer bare, barraskilo, apo, zizare... eta kuadrila horretakoen kontra, nire landareak jaten dituztenak badira ere, horiek ere bizi behar dute. Aldiz, dena dut gizaki irensleen eta giza esku-bideen urraketan ari diren zomorroen eta sitsen kontra.

Hona jubilatutako bat eta bere penak bota baitizkiote landare onenak aldakaitzak kenduta loretan zeudenak sasoiko, ganorazko, polit, ederrenak bat-batean zapuztuz ilusio denak.

Hoberenak kenduta nagusi bareak barraskilo, apoak eta zizareak ziraun, musker, satitsu, sator, uhandreak arrabio, txalburu nahiz erbinudeak... Bidea noren esku du eskubideak?



Iñaki Murua

BERTSOLARIA ETA IRAKASLE OHIA

*Bale, indarrari men egin eta kito!
ilusio gazteak urkabeen ito,
sistemak burujabe ez zaitu begiko,
zuk bai, zuk ez, agian...
zuk duzu segiko...
Esperantza izpi bat:
deus ez da betiko!*

*Non da duintasuna,
non errespetua,
non da gizalegea,
bidezko tratua;
giza haragijalez lepo merkatua,
balioek balio arras merketua:
karnetak ziurtatzen du eserlekua.*

*Bat bazen guztietan distiratsuen
eguzkiaren pare argia zuena,
bazekien egiten "nirea zuena",
zorrotza, ulerkorra jatorra, zuzena eta berak jaso du ordain antzuen.*

*Estomago ttikia nik ez dut maitea ez lider antzua ez bere elitea;
ez lerre jariorik utikan koipea!
Baina zeinen zaila den zerbait egitea,
lagundu nahi izanda nola, ez jakitea.*

Agur sagar beltzaran, mahatsondo lerdan, agur irrifar xume, begirada garden, berdin da eme, homo, trans edota ar den, etekina lortzea helburu nabarmen, esklabotza berpiztu behar izan arren!

Egun tristeak dira ez gaude galako ekaitza gure baitan pausatu delako, animoak ematen dabil jende franko, benetan ari dela pentsatu beharko... baina konponbidea beti da biharko.

Bart batek telefonoz tori xake-mate: "Nitaz ia gehiegi probestu zarete". Ez nuen ba egin nahi inola ere kalte, oharkabe sisteman ni(e)re banaiz parte ez dut onik izango hortik irten arte. ■

Doinua: *Agur sagar beltzaran*. Anje Duhalde.